

# ARKEOLOGIA ETA GAUR EGUNGO GIZARTEA: EMAKUMEAK, AKADEMIA ETA EMAKUMEEN EKARPENAK ARKEOLOGIAREN HISTORIAN

Historiako Gradua

2018-2019 ikasturtea



Iturria: <https://digventures.com/2015/03/pioneering-women-in-archaeology/>

**EGILEA:** Enara Elejaga Jauregi

**TUTOREA:** Belen Bengoetxea Rementeria

**SAILA:** Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila

## AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	4
1. Helburua eta Metodologia .....	4
2. Historia Graduko egoera: hasiera bateko intuiziotik datu zehatzetara .....	6
3. Zergatik emakumeen ekarpenak Arkeologiaren historian? Gaiaren aukeraketa eta garrantzia .....	8
4. Marko teorikoa .....	9
5. Emakume arkeologoak Arkeologiaren historian .....	12
5.1. Lehen emakume bide-erakusleak Arkeologian.....	13
5.2. Mundu Gerren bitarteko garaia: jarraitzaileak.....	19
5.3. 1945etik 1970eko hamarkadara: finkapena eta hedapena .....	23
5.4. 1970eko hamarkadatik gaur egunera: berdintasunaren bila .....	26
6. Ondorioak eta azken proposamenak.....	30
Bibliografia .....	32

## Laburpena

Ikerketaren helburu nagusia Arkeologiaren Historian emakume arkeologoek egindako ekarpenak argitara ateratzea da, gaur egun oraindik ere izkutatuta baitaude emakumeek egin dituzten lan ugari edota guzti honen zati handi bat. Honakoa burutzeko, lehenengo eta behin kontutan izanik, XXI. mende honetan emakumeen ikusezintasuna arlo ugaritan pairatzen dela, unibertsitateko edo irakaskuntzako eremua aztertzea interesgarria iruditu zitzaidan, genero desoreka zein puntutaraino iristen den ikusteko. Horretarako, EHU-ko kasua hartu nuen aztergai bezala, eta zehazki, historiako ikaslea naizen heinean, Letren Fakultatearen barne aurkitzen den Historiako Gradua.

Jada aurreko atala ikertuta, hurrengo pausua marko teoriko bat garatzea izan da, izan ere, oso garrantzitsua da “Generodun Arkeologia” (ingelesez *Engendered Archaeologies* direnak) bezala ezagutzen ditugun korrante arkeologiko desberdinak, hala nola, Genero Arkeologia, Arkeologia Feminista eta *Queer* Arkeologia ezagutzea eta bakoitzaren helburua zein den jakitea, lana errazago ulertzeko. Marko teorikoan kokatu ostean, jada ikerketaren helburu nagusia garatu dut, hau da, emakumeek arkeologian egindako ekarpenak. Emakume arkeologoek lanak azaltzeko lau atal nagusi bereizi ditut, ordena kronologikoari jarraiki. Lehenengo hiru atalei dagokienez, esan hauek gehien bat emakumeen aurkikuntza zein aurrerapauso metodologikoetan zentratzen direla, eta azkena, berriz, emakumeen ekarpen teorikoetan nagusitzen da. Hain zuzen, azken hamarkadetan arkeologiaren diziplinak izandako aldaketak eta helburu berriak azaltzen dira.

Bukatzeko, ondorio eta proposamenen atalean lana egiterako orduan izan ditudan arazoak azaldu ditut, hau da, batez ere, emakume arkeologoek lanei buruzko informazio falta azpimarratu nahi izan dut, hauen ikusezintasunaren ebidentzia argia baita bibliografia urria. Horrez gain, Espainiako unibertsitate batzuen ikasketa planak EHU-ko ikasketa planekin alderatu ditut, eta honekin argitu nahi izan dut EHU-n Historiako Graduari dagokionez behintzat, emakumeen inguruko irakasgaiak eskaintzea eta bultzatzea oso garrantzitsua dela, gaur egun, ez baitago emakumeen historiaren inguruko irakasgai bat ere ez karrerako lau urteetan.

Azken finean, esan daiteke, nire lanaren helburua ez dela izan emakume arkeologoek egindako ekarpen eta lan guztiak azaltzea (hori ezinezkoa baita) baina bai argi erakustea, arlo honetan emakumeek lan ugari egin dutela eta gehienetan honakoa ez dela erakusten ez irakaskuntzan eta hare gutxiago gizartean, beraz, lan honen bidez emakumeen historiaren inguruko kontzientzia bultzatzea izan da nire helburua.

## **0. Sarrera**

Euskal Herriko Unibertsitatean Historiako Graduan sartu nintzenetik, azken kurtsoan egin behar dugun lanaren inguruan hausnartu dut sarritan, eta ahal izan dudan neurrian karreran zehar gustuko gaiak, hau da, emakumearen historia iragan zein gaur egunean hautatzen eta jorratzen ahalegindu naiz, laugarren mailara iristean oinarri indartsu bat edukitzeko eta nire ezagutzak zabaltzen jarraitzeko. Denbora luzez pentsatu dut emakumeen eta hauei historian zehar emandako lekuaren, zein atxikitu eta ezarritako rol eta paperen inguruko azterketa bat egitea beharrezko dela, kontuan izanik, XXI. mende honetan oraindik ere emakumeak ikusezinak edo baztertuak izan direla arlo ugarritan.

Esparru akademikoan gaudenez gero, gure eremuari erreparatuta, esan daiteke, hezkuntza edota Unibertsitatearen kasuak bazterketa honen adibide izan daitezkeela. Hain zuzen, nire ikasketa arloan zentratuz, EHU-ko Historiako Graduko lau urteetan emakumeen inguruko irakasgairik ez egoteak argi uzten digu hutsune nabaria. Horrez gain, irakasle gehienek ez diote inongo arretarik eskaini gai honi, salbuespenen bat kenduta. Kontuan izan behar da, hutsune hau, ez dela ikasketetan edo irakasgaietako materietan soilik pairatzen, baizik eta emakume irakasle zein ikasleen presentzian ere ematen da.

Beraz, esan bezala, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak esparru askotan ematen direla nabaria da, baina gure kasuan mundu akademikoan egoera hau benetakoa den ala ez edota zein puntutaraino iristen den ikustea interesgarria izan daitekeela pentsatu dut. Azken finean Gral bat mundu akademiko honen barruan ulertu behar baita eta horretarako Euskal Herriko Unibertsitatea hartu dut ardatz bezala. Zorionez, badago lanen bat egoera hau analizatu duena, hain zuzen, Emakundek argitaratutako liburua *Genero diskriminazioa Euskadiko Unibertsitate Sistema Publikoan* (2003) eta datuak oso gaurkotuta egon ez arren esanguratsua dela uste dut.

## **1. Helburuak eta Metodologia**

Ikerketaren helburu nagusia lehenago aipatu den bezala, arkeologiaren historian emakume arkeologoen egindako lan zein ekarpenak azalera da, izan ere, emakume ugarririk paper garrantzitsu bat bete baitute diziplinan eta ez zaie bere merezimendua eman.

Dena den, hau ez da izan lanaren helburu bakarra eta bestelako azpi helburu, aurrekoarekin lotuta, batzuk ere jorratu ditut. Horien artean, aipatzekoa da lehenik eta behin, eremu akademikoaren inguruan egindako ikerketa, hau da, EHU-ko Historia Graduaren egoerarena. Honakoaren bidez, erakutsi nahi izan dut gaur egun Historia Graduko irakasle zein irakasgaietako materiaren nondik norakoak zeintzuk diren. Atal hau egiteko erabili dudan metodoari dagokionez, esan EHU-ko web orrialdean, zehazki Letren Fakultateko atalean bilatu ditudala datu desberdinak eta hauekin taula batzuk egin eta bertako emaitzak analizatu ditut, ondorio batzuk lortzeko. Horrez gain, unibertsitateak berak egindako jarraipen txostenak zein, EMAKUNDE-k 2003an argitaratutako liburua *Genero diskriminazioa Euskadiko unibertsitate sistema publikoan* ere ezinbestekoak izan dira atal hau osatzeko.

Beste azpi helburu bat emakume arkeologoen ikusezintasunaren arazoa nondik datorren aztertzea izan da. Horretarako, iturri tradizionaletara jo dut, hau da, frogatu nahi izan dut arkeologian oso erabiliak diren betiko liburuetan ea emakumeen presentzia nolakoa den. Hori dela eta, Bruce Graham Triggeren *“Historia del pensamiento Arqueológico”* liburua (1989) edota 1975ean Glyn Danielek argitaratutako *“150 years of Archaeology”* edo Alain Schnappek 1993an idatzitako *“La conquête du passé : Aux origines de l'archéologie”* liburuak hartu ditut aztergai, eta noski, pentsatzen nuen bezala emakumeen ikusezintasuna begi bistakoa izan da.

Honakoa ikusi ondoren jada lanaren helburu nagusira jo dut, hau da, emakume arkeologoen historiara. Hasteko, argi utzi nahi dut, ez ditudala ez emakume arkeologo guztiak ezta beraien ekarpen guztiak azaldu, baizik eta etapa bakoitzean hautaketa bat egin, eta emakume batzuen lanak baino ez ditut ikertu. Aipatu beharra dut, atal hau egiterako orduan, iturriei dagokienez, hasiera batean behintzat arazo nahikorekin aurkitu naizela, izan ere, nahiz eta lanak egon badauden, ez dira ugari ere. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka bestelako iturri batzuez baliatu naiz, hain zuzen, interneten aurkitutako web-orri zein blogez, eta azkenik informazio oparoago bat lortzeko aukera izan dut. Dena den, emakume arkeologoen eta beraien ekarpenei buruzko bibliografia “falta” honek argi uzten du oraindik ere lan ugari geratzen dela aurretik.

Eta azkenik, argitu nahi dut, lan honen bitartez nolabaiteko nahi bat izan dudala, nahiz eta ez dudala argi eta garbi esan lanean zehar, hau da, lan guzti honen atzean dagoen mezua

da, XXI. mende honetan oraindik ere emakumeok arlo askotan ezkutuan gaudela, gauza bera gertatzen delarik arkeologiaren munduan, hortaz, GRAL hau aurretik geratzen zaigun bide luzeari egindako ekarpen txiki bat da.

## **2. Historia Graduako egoera: “hasiera bateko intuiziotik datu zehatzetara”**

Pixkanaka-pixkanaka EHU-ko egoeraz jabetzen hasita, lehen aipatu dudan betidanik izandako intuizio hori baieztatzeko nire inguruko egoera hurbilena, Letren Fakultatea eta Historiako Gradua, hain zuzen, aztertzea erabaki nuen. Horretarako datuak behar dira, jakina, eta eskuragarri dauden Historia Graduari buruzko Jarraipen Txostenek eskaintzen duten informazioa erabilgarria izan da egoera honen inguruko “diagnostiko” bat egiteko. Beraz, EHU-ko orrialdean sartu eta 2017-2018 Historiako Graduako txostenaz baliatu nintzen, honakoa baita tituluari buruz egin den azken azterketa, 2017-2018 kurtsoko datuak eta aurreko kurtsuetako joerak biltzen dituelarik (<https://www.ehu.eus/eu/historiako-gradua/egiaztapena-jarraipena-eta-akreditazioa>).

Jarraipen txostenean izaera ezberdinetako datu interesgarri asko biltzen diren arren, unibertsitate-irakaskuntza munduan emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak neurtzeko baliozkoa izan daitekeen adierazle esanguratsu bat izan dugu kontuan: irakasle emakume eta irakasle gizonen kopurua gure graduari, eta honakoa ikusteko jarraipen txosteneko datuen bidez egindako taulaz baliatuko naiz. Taularen emaitza nahiko harrigarria izan da. Azken ikasturtean (2017-2018) 89 irakaslek parte hartu dute Historia Graduako irakaskuntzan, baina horietatik 65 gizonak ziren bitartean, emakumeak 24 baino ez ziren. Irakasle doktoreak berriz, 64 ziren guztira, gizonak 51 eta emakumeak 13. Aurreko kurtsuetako datuei erreparatuz gero, egoera nahiko antzeko batekin aurkitzen gara, generoaren desoreka guztiz nabaria delarik. Hain zuzen, 2016-2017 kurtsuan ikus daiteke desoreka oso nabaria zela baina 2017-2018 kurtsuan egoera okertuz joan da, azken bost ikasturteetako emakume kopuru txikiena eman delarik. Azken finean, datu hauek agerian uzten dutena, besteak beste, Historiako graduari parte hartzen duten sailletako egoera da. Egoera honen arrazoiak oso izaera ezberdinekoak izan daitezke, eta oso konplexuak, eta GRAL hau ez da horretan sakontzeko lekua, baina argi uzten du hausnarketa bat merezi duela.

<b>HISTORIA GRADUKO</b>						
<b>IRAKASLEAK</b>	<b>2017/2018</b>	<b>2016/2017</b>	<b>2015/2016</b>	<b>2014/2015</b>	<b>2013/2014</b>	<b>2012/2013</b>
<b>Irakasle kopurua guztira</b>	89	103	93	90	83	67
<b>Emakumezko irakasle kopurua</b>	24	34	34	25	25	25
<b>Gizonezko irakasle kopurua</b>	65	69	59	65	58	42
<b>Irakasle doktore kopurua</b>	64	68	66	64	58	50
<b>Emakume irakasle doktoreak</b>	13	15	19	12	13	16
<b>Gizon irakasle doktoreak</b>	51	53	47	52	45	34

1. Taula: EHU-ko Historia Graduko irakasle emakume eta gizon kopurua 2012-2018 urte artean.

Iturria: <https://www.ehu.es/eu/historiako-gradua/egiaztapena-jarraipena-eta-akreditazioa> Kontsulta eguna (2019/05/10)

Datu hauek kuantitatiboak izanik, izaera kualitatiboa duen beste egoera bat analizatu nahi izan dugu, eta horretarako emakume eta gizon irakasleek ematen dituzten irakasgai motak hartu ditugu ardatz bezala. Horretarako, berriz ere EHU-ko web orrialdean Historia Graduko atala kontsultatu dugu (<https://www.ehu.es/eu/historiako-gradua/kreditu-eta-irakasgaiak-ikasturteka>).

Kontsulta horren arabera, zera ikus daiteke: nahiz eta lehenengo mailan eta bigarrenen emakume eta gizon kopurua nahiko parekatua izan, kurtsoek aurrea egin heinean, hau da, hirugarren eta laugarren mailara iristean argi eta garbi antzematen da emakume irakasleen kopurua jaisten dela eta gizonezkoena berriz hasi egiten dela, azken kurtsoetako hautazko ikasgaietan ere emakume askoz gutxiago daudelarik. Egoera hau irudikatu ahal izateko, EHU-ko orrialdean Historiako Graduko irakasle zein ikasgaien datuen bitartez taula bat egitea erabaki nuen.

Taulak argi erakusten digu orokorrean maila guztietan emakume irakasleen kopurua askoz ere murriztagoa dela, salbuespen bakarra delarik, hain zuzen, lehenengo mailako

lehen lauhilekoa, 7 emakume daudelarik eta 6 gizon, hala ere, bien arteko aldea oso txikia da. Gainontzeko mailetan berriz, emakumeen presentzia gero eta txikiagoa da, muturreko kasuan emakume irakasle kopurua 0 delarik, hau da, laugarren mailako bigarren lauhilekoan. Beraz, argi eta garbi ondoriozta daiteke irakasgaiak gero eta espezializatuagoak izan, emakumeen presentzia gero eta urriagoa dela.

HISTORIA GRADUKO MAILAK	Lauhilekoak	Emakume irakasleak	Gizon irakasleak
1. maila	1. lauhilekoa	7	6
	2. lauhilekoa	5	11
2. maila	1. lauhilekoa	2	9
	2. lauhilekoa	3	10
3. maila	1. lauhilekoa	2	12
	2. lauhilekoa	5	8
4. maila	1. lauhilekoa	1	13
	2. lauhilekoa	0	8
Hautazkoak (3-4 mailak)	1. lauhilekoa	3	11
	2. lauhilekoa	1	5

2.Taula: EHU-ko Historia Graduko irakasle emakume eta gizon kopurua kurtsoka.

Iturria:<https://www.ehu.es/eu/historiako-gradua/kreditu-eta-irakasgaiak-ikasturteka> Kontsulta eguna (2019/05/10)

Guzti hau kontuan hartuta, 2019an bat gatoz S. Andino eta P. Pérez-Fuentese-ek 2003an esan zutenarekin: *“Zenbat eta handiagoa izan ikaskuntza kategoria, txikiagoa da emakumezkoen kopurua; eta, era berean, zenbat eta emakume gutxiago izan, are eta baloratuagoa da irakasgaia”* (Andino S., Pérez-Fuentes P., 2003, 75).

### 3. Zergatik emakumeen ekarpenak Arkeologiaren historian? Gaiaren aukeraketa eta garrantzia

Aurreko orrialdeetan egindako ikerketaz jabetu ostean argi neukan beharrezkoa zela emakumeen ikusezintasuna sakonago aztertzea. Hala ere, emakumeen ikusezintasunak eremu zabal bat barneratzen du, beraz, lehendabizi lana arlo zehatz baten zentratu behar izan nuen. Horrela izanik, kurtsu honetako lehenengo lauhilekoan, arkeologia betidanik gustuko arloa izan dudana heinean, *Historia Aztertzeako Metodo Arkeologikoa* deituriko



ikasgai bat hautatu nuen. Zorioneko hautaketa izan zen, honakoak lagundu baitzidan nire laneko gaia bideratzen. Irakasgai honetan, “Arkeologia Feminista eta *Queer* Arkeologia” deituriko hitzaldia eskaini zigun Aitziber Gonzalezek, EHU unibertsitateko Historia Graduan lizentziaturikoak.

Hitzaldian, konturatu nintzen nire egunerokotasunean, emakumeen egoeraren gaiak sortzen dizkidan barne borroka eta buruhausteak, arkeologiaren munduan ere zuzeneko eragina duela eta gaur egun honakoa jorratzen duen korrante handi bat dagoela (lanean zehar geroago azalduko dudana). Ikerketa hau egin bitartean are konbentzituago edo argiago ikusi dut nire lanak ekarpen bat egin dezakeela eta emakume arkeologoek lana aztertzekeo behar izan handi bat dagoela. Konturatu bainaiz, emakumeek arkeologian egindako lan guztiari ez zaiola eman bere merezimendua ezta esker ona.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da gaur egun aurkitzen garen egoerara iristeko eman diren pausuak azaltzea, emakumeen ekarpenak ikustea eta prozesu honetan nortzuk izan diren egileak jakitea. Hala ere, nire lanaren helburua ez da sintesi historiografiko “osoa” egitea, baizik eta gai zehatz batean emakumeen lan eta ekarpenak ezagutaraztea, hain zuzen, Arkeologiaren historian eta garapenean. Horretarako lehendabizi marko teoriko baten bidez, gaur egun, gai honen inguruan dauden korrante arkeologiko desberdinak aztertu beharko dira.

#### **4. Marko teorikoa**

Esan bezala, GRAL-a egiteko aukeratu dudana gaia, marko teoriko baten barne ulertu behar dugu, hau da, arkeologia feministaren barne. Beraz, azken urteotan, batez ere, 1970eko hamarkadatik aurrera, Arkeologiaren adar teoriko honetan garatu diren korrante desberdinak aztertzea beharrezkoa dela uste dut. Horrela ulertuko baitugu emakume arkeologoek historiak zein arkeologiaren diziplinak berak izandako garapen eta aldaketak.

Arkeologia Feministaren hasiera 1970eko hamarkadan kokatu daiteke, bigarren olatu feminista ematean, joera sexistek arkeologiaren munduan ere eragiten zutela konturatzen hasi zirenean. Lehendabiziko arkeologia Feminista Amerikako Estatu Batuetan eta Norvegian jarri zen martxan, ohartu zirenean lanbidea eta iraganaren interpretazioa,

ikuspuntu androzentriko batean oinarritzen zirela. Horrela izanik, berdintasunean oinarritutako kultura baten alde egiteko prestatzen hasi ziren. Lehen urte hauetan sekulako aurrerapausoa izan zen iraganeko ikerketek arkeologo edo ikertzaileen baloreen erakusle zirela onartzea, emakumeentzako kaltegarriak zirela aldarrikatzea eta genero dominatzailearen aldeko jarrera zutela erakustea (Montón Subías S., 2014, 242 ).

Diziplinari egindako autokritikek, jada ikertutako lanei emandako interpretazio alternatibo berriek eta ikerketarako gai zein perspektiba berriek, Generodun Arkeologia bezala ezagutzen dugunaren oinarriak garatu zituzten. **Will Meyer**-en hitzetan oinarrituz, Generodun Arkeologiaz hitz egiterako orduan, iraganeko ikerketetan edo lanbidean, sexua, generoa eta sexualitatea zalantzan jartzen dituzten arkeologia motez ari gara. Beraz, talde honetan sartzten dira: Genero Arkeologia, Arkeologia Feminista eta *Queer* Arkeologia (Montón Subías S., 2014, 242-243 ).

Gaur egungo testu arkeologikoetan emakumeen eta gizonen presentzia, beraien lan eta rolak eta hizkuntza beraren zaintza, nahiko ohikoak dira. Genero aldagaia praktika arkeologiko orokorrera zabaldu da, batez ere eremu anglosaxoian eta baita Espainian ere. Arkeologian kontzientzia berri bat ikus daiteke, gizartearen aldaketaren ondorioz eta feminismoak arkeologian izandako eraginaren ondorioz. Hala ere, aipatu dudana bezala, eremu honen barruan, arkeologia mota desberdinak aurki ditzakegu, Genero Arkeologia eta Arkeologia Feminista, lehena bigarrenaren deribazio bat omen da (Berrocal M. C., 2009, 26).

Genero Arkeologiaren sorrerari dagokionez, 1980ko hamarkadan, generoa, kategoria analitiko bezala integratu zen Arkeologiaren diziplinan, 70eko hamarkadan antropologia feministak izandako eztabaida handiari esker eta sexua eta generoa banatzea lortu zen. Hortaz, generoa ikerketarako eremu berria bilakatu zen, Genero Arkeologiari sorrera emanez. Iraganeko genero sistemen antolakuntza eta eraikuntzaren inguruko ikerketak garatzen hasi ziren, generoaren rol, jarduera eta sinbologian oinarrituz (Montón Subías S., 2014, 243 ).

Genero Arkeologiaren helburu nagusia iraganari buruzko informazio beteago bat lortzea da, emakumeei eta hauen jarduerari buruzko datu zehatzak lortuz. Horrela izanik, esan daiteke erabateko dokumentazioa lortzen duela eta arkeologia enpirista bat dela. Honi

esker, gizartean hedatzea lortu du, hala ere, gizarteratze honek bere ondorioak izan ditu. Arkeologo feminista ugari salatuta dute Genero Arkeologiak konpromiso politiko baten falta duela feminismoarekin, izan ere, nahiz eta honakoa izan arkeologian emakumeak berreskuratzeko prozesuaren bultzatzailea, honen parte ziren emakume gehienek adierazi zuten ez zirela feministak. Eta feminismoaren ekintzetatik asko urruntzera iritsi ziren. Beraz, esan daiteke, Genero Arkeologiak konnotazio politikoetatik urrundu nahi zuela (nahiz eta praktikan horrela ez izan), neutraltasun eta objektibitatea adierazteko (Berrocal M. C., 2009, 26-27).

Arkeologia Feministaren helburua, berriz, ez zen emakumeak erakustea soilik. Honakoari dagokionez, esan beharra dago, emakumeak historian zehar bilatzeaz gain, askoz ere haratago doan diziplina dela. Izan ere, Arkeologia Feministak, sortutako diskurtso teorikoak, ondorioak, hipotesiak... ikuspuntu kritiko batez biranalizatzea du helburu, diskurtso alternatibo edota errealitatea beste ikuspuntu batez azaltzeko, hau da, arkeologia egiteko modua aldatu nahi du. Arkeologo Feministen arabera, Genero Arkeologiak, berriz, ezin dezake honakorik egin, izan ere, ezin dezake paradigma nagusia irauli, honakoaren erabateko behar izana baitu (Berrocal M. C., 2009, 26-27). Hortaz, nahiz eta hasiera batean Genero Arkeologia, Arkeologia Feministaren adar bat izan, ondoren autore ugari arriskua ikusi eta hauengandik urrun mantentzea erabaki zuten, *mainstream* akademikoan babestuz (Montón Subías S., 2014, 244).

Generodun Arkeologiaren garapenera itzuliz, 1990eko garaian, hirugarren olatu feminista eman zenean, arkeologia feministen eta generoko arkeologia batzuen artean, kezka berriak loratzen hasi ziren, sexua eta generoaren arteko harremanaren ikuspuntuaren inguruan eta norbanakoaren nortasunaren inguruan hain zuzen. Egoera honi erantzuteko, *Queer* Arkeologiaren sorrera eman zen, heterosexualitatearen hegemonia apurtu zedin. *Queer* Arkeologiak aldarrikatzen du sexua gizartetik eraikitzen den zerbait ere badela eta beraz, sexu eta generoaren binomioa ez dela zerbait erreal (Montón Subías S., 2014, 243-244).

Ikertzaile ugari biologia (sexua) eta kulturaren (generoa) arteko banaketa onartzen zuten heinean, ikerketek aurrera egin zuten. Honen ondorioz, hirugarren genero bezala ezagutzen diren inguruko ikerketek eta analisi interseksionalek, hau da, adinarenak, arrazarenak, sexualitatearenak... arrakasta handia izan dute. Horrez gain,

maskulinitateari eta identitate pertsonalari buruzko lehen gogoetak bultzatu dira (Montón Subías S., 2014, 244 ).

Arkeologia Feministak eta *Queer* Arkeologiak patriarkatuari amaiera emateko konpromiso politikoa dute. Beraz, diziplinazko kulturaren aldaketa bat eman beharko dute joera sexistak eta heterosexistak bertan behera utziz. Horrela izanik, bestelako korrante arkeologiko batzuetako helburuekin ere bat egiten dute, esate baterako, Latinoamerikako arkeologia sozialarekin, arkeologia post kolonialarekin eta arkeologia indigenistarekin (Montón Subías S., 2014, 244).

Jada azken urteotan emakumeen rolen inguruan garatu diren korrante arkeologiko nagusiak laburki azaldu ondoren, jarraian emakume arkeologoek historia azaltzen hasiko naiz, hauetariko batzuen ekarpen nagusienak aztertuz.

## **5. Emakume arkeologoak Arkeologiaren historian**

Arkeologia hasiera batean beste hainbat disziplina bezala gizonezkoen jarduera kontsideratzen zen edo honakoa irakatsi izan digute sarritan, emakumeak alde batera utziz. Ondorio hori atera daiteke Arkeologiaren Historiaz aritu diren autore eta lan ohikoenak eta erabilienak kontsultatuz. Adibide on bat izan daiteke, Bruce Graham Triggeren "*Historia del pensamiento Arqueológico*" liburua (1989), zeina arkeologiaren historiaren oinarritzko liburu bat kontsideratzen den eta oso erabilia den arkeologo zein irakasleen artean. Liburua aztertzen hasiz gero, berehala konturatuko gara emakumeen presentziaren faltaz. Lehen kapituluan, 20-21 orrialdeetan zehazki, arkeologiako mugimendu garrantzitsuenek eta hauen parte diren pentsalari zein arkeologoek osatutako taula bat azaltzen da. Taula 89 arkeologok osatzen dute eta guzti horietatik 2 baino ez dira emakumeak, Jacquetta Hawkes eta Patty Jo Watson.

Gauza bera gertatzen da gizonezkoek idatzitako beste liburu batzuekin, esate baterako, 1975ean Glyn Danielek argitaratutako "*150 years of Archaeology*" edo Alain Schnappek 1993an idatzitako "*La conquête du passé : Aux origines de l'archéologie*" liburuekin. Arkeologiako oinarritzko liburuak diren heinean, arazo larri batekin aurkitzen gara, izan ere, liburu hauek arkeologiaren munduan mugitzen diren, hau da, arkeologo, irakasle zein ikasle askoren eskuetatik igarotzen dira sekulako influentzia edukiz eta emakumeak

erabat alde batera utziz. Ondorioz, arkeologiaren historia joera androzentriko batetik hedatzen da, arkeologia teorikoa zein praktikoa gizonengan zentratuz.

Hala ere, guzti honetan apur bat sakonduz, lehen urte hauetan egindako lan eta aurkikuntza ugaritan emakume arkeologo asko egon zirela esan daiteke. Pixkanaka-pixkanaka, historiografia gero eta kritikagoaren ondorioz, lan hauek zalantzan jartzen hasi dira eta emakume arkeologoen liburu historiografikoak argitaratu dira. Aipatzekoak ditugu, Classenen *“Women in Archaeology”* (1994) eta Hilary du Cros eta Lauranje Smithen *“Women in Archaeology a Feminist Critique”* (1993) edota *“Archaeology and Women”* (2007). Lan hauek nahiz eta hasiera bat izan, argi uzten dute oraindik ere lan handia dagoela egiteko, emakumeen lan arkeologikoen ekarpenen inguruko hutsune oso handi bat baitago.

Guzti hau kontuan hartuta, datozen puntuetan, Arkeologiaren Historiaren garapenean emakume arkeologoen egindako ekarpenez arituko naiz. Hasi baino lehenago, beste zerbait ere azaldu behar da: ezinezkoa da emakume guztiek egindako lan arkeologiko eta aurkikuntza guztiak azaltzea. Beraz, argitu nahi dut hurrengo atalean emakumeek egindako ekarpen nabariak azaleratuko ditudala eta ez lan guztiak. Emakume arkeologoen ekarpenak azaltzeko, lau atal nagusi bereizi ditut, kronologian oinarrituta, hau da, testuinguru historiko bakoitzean Arkeologiaren garapen zein aldaketak nolakoak diren kontutan izanez.

### 5.1. Lehen emakume bide-erakusleak Arkeologian

Emakume arkeologoen historiografiari dagokionez, egoera desberdina ematen da XIX. mendean eta aurreko garaietan. Kontuan izan behar dugu, arkeologia XIX. mendera arte ez zela instituzionalizatu, hau da, lehen unibertsitateak arkeologia irakasten hasi zirenera arte eta lehen museo arkeologikoak ireki zirenera arte. Pioneroak ez zuten inongo ikasketa espezializaturik jaso eta diziplina sortzeaz arduratu ziren. Pionero hauen artean, emakumeek ere beraien rola jokatu zuten (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 11).

Lehen emakumeen artean aipatzekoa dugu, **Johanna Mestorf** (1829-1990) alemaniarra, zeinak sekulako lana egin zuen XIX. mendean Alemanian, arkeologia eskandinaviarraren ezagutza eta aurrerapenak zabaltzen. Mestorf nahiz eta arkeologoa izan eta ondoren

irakasle bilakatzera iritsi, hau da, Europako unibertsitateko lehen irakasle emakumea, arkeologiaren historiaren lan garrantzitsuetan ez da inoiz aipatzen.



1.Irudia: Johanna Mestofen erretratua. Iturria: <http://www.gshdl.uni-kiel.de/news/mestorf-ice/> Kontsulta eguna (2019/05/16)

1863tik aurrera, argitalpen eskandinaviarrak alemanera itzultzen ibili zen, Nillson, Müller eta Monteliusen lanak, besteak beste. Bere lanei esker, Hiru Aroen sistemaren onarpena bultzatu zen Alemaniako arkeologian (Harri Aroa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa). Mestorf nahiz eta oso figura garrantzitsua izan eta sekulako ekarpenak egin, arkeologo emakume honi buruzko lan bakar bat baino ez dugu, Maertensek idatzia (1992) hain zuzen (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 11-13).

Ikusi dugun bezala, XIX. mendean zehar, arkeologia, instituzionalizazio prozesu batean aurkitu zen, beraz, antzinako ikerketa gehienak profesionalizatu gabeko pertsonak burutzen zituzten (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 13). Hauen artean, aipatzekoa dugu **Jane Dieulafoy** (1851-1916). Dieulafoy ez zen bere garaiko “French Victorian lady” ohiko bat. 1870ean, 19 urterekin Marcel Auguste Dieulafoyrekin ezkondu zen, Frantzia-Prusia gerra hasi zen urte berean. Senarra armadan sartu zen boluntario bezala eta Janek ez zuen atzean geratu nahi izan. Hori zela eta, ilea moztu, soldaduen uniformeak hartu eta gerrara joan zen “gizonez” jantzita ([www.micmag.net/en/profiles/3864-jane-dieulafoy-una-francotiradora-periodista](http://www.micmag.net/en/profiles/3864-jane-dieulafoy-una-francotiradora-periodista)). Hau ere bere pertsonalitatearen erakusle bezala har daiteke.




2. Irudia: Jane Dieulafoyen erretratua. Iturria: [https://www.eldiario.es/retiaro/Jane-Dieulafoy-exploradora-trasvestida\\_6\\_757034312.html](https://www.eldiario.es/retiaro/Jane-Dieulafoy-exploradora-trasvestida_6_757034312.html) Kontsulta eguna (2019/05/16)

Gerra bukatu ostean, 1884ean Susan zeudelarik Jane indusketa lanetan aritu zen etiketak, mapak eta beraien aurkikuntzen berreraiketarako egiten. Sei hilabetetan, hainbat altxor eta monumentu aurkitu zituzten, hauen artean, Lehoien frisoa eta Arkularien frisoa. Ondoren guzti hauek Parisera bidali zituzten kontu handiz eta Louvre museoan kokatuak izan ziren. Janen ekarpen guztiei esker, 1886an Frantziako Gobernuak, Ohorezko Legioaren Gurutzea eman zion. Esan beharra dago Janen ezaugarri nagusienetako bat “gizonez jantztea” zela, garai hartan Frantzian guztiz debekatuta zegoena. Garai gogorak ziren emakumeentzat, baina Janek egoerari aurre egin nahi izan zion bere lana burutu ahal izateko.

Emakume aitzindari hauen ondoren, XIX. mende amaierako hamarkadetan eta XX. mendeko lehen urteetan, beste emakume berri batzuk iritsi ziren arkeologiara. Garai honetan, sekulako eragina izan zuen gizarte industrialaren sorrerak, izan ere, industrializazioa eman zen lehen herrialdeetan onartu ziren emakumeak arlo profesionalean, Ingalaterran, Frantzia eta Alemanian, besteak beste. Arkeologian lan egin zuten emakumeen artean eragina izan zuen beste faktore garrantzitsu batek: atzerrian lan egitea. Hala ere, ez dago argi ea emakumeak atzerrira joan ziren nahi zutelako edo emakumeak behartuta egon baziren atzerrira ihes egitera lan egin ahal izateko (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 13-14).

Emakume hauen artean **Gertrude Bell**-ez (1868-1926) hitz egin dezakegu, sarritan arkeologo baino Ekialde Hurbileko politiko kontsideratzen dena. Bellek Turkiako, Siriako eta Irakeko hainbat eremutan burutu zituen indusketa lanak. Kargu politiko bat lortuz, Irakeko etorkizuna bideratzen lagundu zuen. 1926an Irakeko Museo Nazionala sortu zuen Baghdaden eta lurralde hartako ondare kulturala babesteko borrokan aritu zen. Ekialdeko talde, kultura eta bizimodu guztiz desberdinak ezagutu zituen eta 1906an *The desert and the sown* liburua argitaratu zuen guzti hau islatuz.



3-4. Irudiak: Gertude Bellen erretratuak eta indusketa lanetan. Iturriak:

<https://www.mujaresenlahistoria.com/2013/05/la-constructora-de-irak-gertrude-bell.html> eta  
<https://digventures.com/2015/03/pioneering-women-in-archaeology/> Kontsulta eguna (2019/05/18)

Ondoren, 1911an Mesopotamiara bidaiatu zuen. Gobernu britaniarrak mundu arabiarrari buruzko informazioa emateko kontratatu zuen. Horrela izanik, gobernuak mapa bat egitea eskatu zion tribuen arteko borroka ekiditeko asmoarekin. 1921ean Winston Churchilek eremu berriko mugak ezartzeko antolatutako bileran, Bell emakume bakarra



izan zen 40 gizonen aretan (<https://www.mujaresenlahistoria.com/2013/05/la-constructora-de-irak-gertrude-bell.html>).

Garai hartan, emakumeengan eragin handia izan zuen ere hainbat gizonen jarrerak, izan ere, batzuk emakumeak indusketa lanetan parte hartzearen aurka egon ziren. 1904ean Danimarkako Museo Nazionaleko Bigarren Departamenduko zuzendariak honakoa adierazi zuen: *“The work with the monuments of our fatherland is according to its nature men's work, it demands the exercise of physical strength and stamina which cannot be expected to be found amongst women”* emakumeak lan hauek egiteko gaitasunik ez zutelara argi utziz (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 8). Irakasle batzuk ere, emakumeak indusketa-lanetan parte hartzearen kontra azaldu ziren, eta honen adibide argia dugu **Harriet Boyd Hawes** (1871-1945) estatubatuarraren kasua. Hawes arkeologiako ikasle bat baino ez zenean, Atenaseko American School-eko zuzendaria Hawesek indusketa-lan batzuk burutzearen aurka azaldu zen. Hala ere, Harrietek ez zuen amore eman eta Kretara bidaiatu zuen, non, geroago azalduko dugun bezala, sekulako aurkikuntza lana egin zuen.



5.Irudia: Harriet Boyd Hawesen erretratua. Iturria:

<http://philosophyofscienceportal.blogspot.com/2010/10/harriet-boyd-hawessignificant-woman.html>

Kontsulta eguna (2019/05/18)

Hawesek betidanik izan zuen Greziako kultura eta historia ezagutzeko interes handia. Hori zela eta, Atenaseko American School of Classical Studies eskolara joan zen. Oso

arkeologo famatua bilakatu zen bere lanengatik, hain zuzen, 1900eko udaberrian indusketa lan batzuk zuzendu zituen Kayoui-n (Kretan) eta garai geometrikoko (K.a. 900) etxeak eta hilobiak aurkitu zituen. Hortik eta urte batera, Gournian (Kreta) lehen aldiz zibilizazio mionikoen asentamendu bat aurkitu zuen eta liburu bat argitaratu zuen *Crete: the Forerunner of Greece*. 1900an Estatu Batuetara itzuli zen eta Smith College-k eskainitako lana onartu zuen greziar arkeologiako irakasgaia emateko. 1905era arte egon zen lanean Smith Collegen, bertako lana atzerrira egindako espedizio arkeologikoekin tartekatzen zuelarik. Bukatzeko, nahiz eta Hawes ezkondu eta familia berri bat izan, ez zuen inoiz bere lana alde batera utzi eta guzti honi esker, 1910ean Smith Collegek ohorezko titulua eman zion ([https://asteria.fivecolleges.edu/findaids/smitharchives/manosca102\\_bioghist.html](https://asteria.fivecolleges.edu/findaids/smitharchives/manosca102_bioghist.html)).

Beraz, esan bezala, ikus daiteke emakumeak arkeologian integratzeko oztopo nagusienetariko bat landa lanean jarduteko aukera eza zela, emakumeak indusketetan onartuak ez ziren heinean. XX. mende erdialdera arte arkeologiako funtsezko jarduera indusketa zen eta sarritan emakumeen gaitasuna zalantzan jartzen zuten, esanez indar fisikoa eta erresistentzia gizonezkoen berezko ezaugarriak zirela eta ez emakumezkoenak. Horrez gain, emakumeak gizonak landa lanean jarduten zutenean distraitzeaz salatzen zituzten, hauen lana oztopatzen zutela esanez (Hamilton S., Whitehouse R., Wright K., 2007, 122-124).

Laburbilduz, hurrengo taulan ikus dezakegu gizonezko arkeologo batzuen esanetan landa lanean jarduteko ezaugarri aproposak zeintzuk ziren eta zeintzuk ez. Kontuan izan behar dugu, orokorrean lehenak gizonei atxikitzen zitzaizkiela eta bigarrenak, berriz, emakumei.

<b>LANDA LANERAKO EZAUGARRI EGOKIAK</b>	<b>LANDA LANAREKIN BAT DATOZEN EZAUGARRIAK</b>	<b>ITURRIAK</b>
Azazkal laburrak	Esku garbiak	Flinders-Petrie 1904: 6-7; Wheeler 1954: v
Azal gogorra	Azal polita	Flinders-Petrie 1904: 6-7
Sendotasuna	Norberaren eskorga bultzatzeko laguntza beharra	Noel Hume 1969: 60
Min fisikoa jasateko eta lokatzaz eta euriaz gozatzeko gaitasuna	Suminkortasuna	Alexander 1970: 12; Rowe 1958: 154
Diziplina	Jarrera histerikoak eta urduritasuna	Blade 1934; Flinders-Petrie 1904: 21

3.Taula: Landa lanean jarduteko ezaugarri aproposak eta ez aproposak, arkeologo desberdinen iritziz.

Iturria: Hamilton S., Whitehouse R., Wright K., 2007, 122

Azkenik aipatu, belaunaldi honetako emakumeen artean, arkeologiaren historian ezkutatuta mantendu diren beste emakume talde bat ere aurki dezakegula, hain zuzen, gizon arkeologoek emazteek osatzen dutena. Hauen artean, **Tessa Wheeler** (1883-1936) aurkitzen da, Sir Mortimer Wheelerren emaztea. Tessak hainbat indusketa planifikatu eta hauetan parte hartu zuen, indusketen informeak idatzi zituen, hainbat konferentzia eman zituen eta dirua biltzeko kanpainak antolatu zituen. Lan guzti hau egin arren, askotan ez da onartzen arkeologoa izan zenik (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 14-15).

### 5.2. Mundu Gerren bitarteko garaia: jarraitzaileak

XIX. mende amaieran, akademiaren instituzionalizazioa ematean, beharrezkoa bilakatu zen lanean hasteko kualifikazio egoki bat edukitzea. Hasieran, emakumeei debekatu egin zitzairen kualifikazio hori lortzeko aukera, baina pixkanaka-pixkanaka emakumeen borrokei esker, unibertsitatean sartzeko aukera lortzen hasi ziren. Honi esker, herrialde ugartan Lehen Mundu Gerraren ostean, emakumeek unibertsitatean tituluak lortzeko “baimena” eskuratu zuten eta pioneroak diziplinan sartzeko aukera izan zuten; kontutan izanik, salbuespenak ere egon zirela eta emakumeren batek lehenago lortu zuela unibertsitatera joateko aukera (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 15).

Nahiz eta emakumeen kopurua igo arkeologia munduan eta herrialde gehiagotako emakumeak sartu, hala nola, Suedia, Norvegia, Grezia eta Espainiakoak, orokorrean emakumeen lanak berdintzen jarraitzen zuten. Emakumeen lan nagusia museoetan zegoen. Izan ere, museoetako jarduerak lan “femeninoak” (objektuen erabilera, hauen garbiketa eta antolamendua, hau da, emakumeen etxeko paper tradizionalarekin bat egiten zuten jarduerak) kontsideratzen zituzten eta hortaz ezin hobeak ziren beraiantzat. Hala ere, aitortu beharra dago, museoetan emakumeek kargu desberdin handiak lortu zituztela, esate baterako, Danimarkan 1910ean **Maria Mogensen** zaintzaile garrantzitsu bilakatu zen. Beste batzuk, berriz, zuzendariak izan ziren, **Ursicina Martínez Gallego** eta **Concepción Blanco Mínguez** Espainian eta **Anna Apostolaki** Grezian, esate baterako (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 15-16).

Unibertsitateko irakaskuntza berriz, oraindik ere oso itxita zegoen emakumeentzat, diziplinako beste adar batzuekin konparatuz. Hala ere, beti bezala, salbuespenak egon ziren, **Dorothy Garrod** (1892-1968), hauetariko bat izan zelarik. Garrod Britainia Handian, Cambridge Unibertsitateko lehen arkeologiako emakume irakasle izendatu zuten 1939an. Bere ikerkuntza lanak garrantzi handia izan zuten, baina beste hainbat emakume bezala ez du jaso merezi duen esker ona. Paleoantropologian, hau da, giza eboluzioa aztertzen duen zientzian espezializatu zen eta ikerkuntzarako arlo berriak sustatu zituen. Eremu desberdinetan ibili zen lanen, hala nola, Britainia Handian, Gibraltarren, Kurdistanen, Ekialde Hurbilean eta Libanon (<https://mujeresconciencia.com/2014/09/22/dorothy-garrod-rememorando-una-innovadora-arqueologa/>).

Zientziari egindako aportazio nagusienak, Ekialde Hurbilean burututakoa lanaren bidezkoak izan ziren, horren adierazle direlarik garaian bertan eta ondoren argitaratutako hainbat artikulua. 1928an bidaiatu zuen lehenengo aldiz Ekialde Hurbilera eta berehala Carmelo mendiko haitzuloetara abiatu zen lanean hasteko. Garroden indusketa metodoa nahiko berezia izan zen. Bestelako arkeologoek ez bezala, nahiago zuen toki bakoitzeko emakumeak kontratatzea, izan ere, bere esanetan emakumeek esku ona zeukaten lan hartarako. Indusketa taldearen zati handi bat emakumez osatuta egoteak, adierazten digu, Garrod oso berritzailea eta aurrerakoa izan zela bere garairako.



6.Irudia: Dorothy Garrod eta beste emakumeak Carmelo mendiko haitzuloetan 1929ko indusketetan.

Iturria: <https://trowelblazers.com/dorothy-garrod-2/> Kontsulta eguna (2019/06/03)

Carmelo mendian egindako lana iraultzailea izan zen arkeologiarentzat orokorrean eta paleoantropologiarentzat zehazki, hiru haitzulotan, harrizko tresneria eta hainbat giza eskeleto, batez ere, neanderthalenak, aurkitu zirelako eta lehenengo aldia zelako Europatik kanpo neanderthalen hezurak aurkitu zituztela. Baliteke, Garrod bezala beste hainbat emakume ere unibertsitatean irakaskuntzan lanean ibili izana, baina hauen lana ez ezagutzea. Kontutan izan behar dugu ere, Bigarren Mundu Gerra hasi baino lehenagoko garai honetan, orokorrean ez zirela katedra ugari egon unibertsitateetan.

Bestalde, ezkontza eta lanaren arteko dikotomiak, sarritan emakume ugari ezkongabe gelditzera behartzen zituen, beraien bizi akademikoarekin jarraitu ahal izateko. Gerra igaro ostean, ezkontzaren inguruko ikuspuntuak aldatu egin ziren, eta emakumeek kasu askotan konpromisu berriak hartu behar izan zituzten, **Caton Thompson**ek bezala, izan ere, senarra galdu zuen gerran. Beste kasu batzuetan, berriz, emakumeak nahiko berandu ezkontzen ziren. Guzti honek, erakusten digu emakume ugari arkeologiarekin eta bere lanarekin erabateko konpromisua zutela. Hori zela eta, ezkondu ostean ere, sarritan seme-alabarik ez edukitzea erabakitzen zuten, garai hartarako nahiko bitxia zena, izan ere, gehiengoarentzat familia bat sortzea zen bizitzako helburu nagusienetarikoa. Azkenik, hainbat emakume arkeologiako arloan mugitzen ziren edo lan egiten zuten gizonekin ezkontzen ziren, beraien egoera ulertuko zutela pentsatuz. (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 19-20).

Ezkontzari edota familiari lehentasuna eman zien emakume ugari, nahiz eta beraien lana bertan behera utzi, urte batzuk igarota berriz ere, arkeologiara itzultzea erabaki zuten

edota beti diziplinaren barruan jarraitu zuten. Esate baterako, **Senta Rafalski-Giering** alemaniarra, bere senarra hil ostean, 1972an, 64 urterekin Afrikan egindako proiektu baten inguruko hainbat lan argitaratu zituen. Espainian ere hainbat kasu eman ziren, esate baterako, **Encarnación Cabré** 64 urterekin burututako lan arkeologikoen inguruan idazten hasi zen (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 21).



7. Irudia: Encarnación Cabré, José García Cernuda eta langile bat 1932an seguraski tumulu baten ondoan. Iturria: <https://www.flickr.com/photos/avilas/7563463580/in/photostream/>

Kontsulta eguna (2019/06/03)

Espainiako Gerra Zibila baino lehen Encarnación Cabré Madrileko unibertsitatean arteko klaseak emateaz arduratzen zen. Gerra garaian eta honakoa bukatu ostean ere arte-ondarea babesteaz arduratzen jarraitu zuen “Berreskurapen Zerbitzuari” esker. Horrez gain, CSIC-en lanean aritu zen M. Gómez Morenorekin batera 1939ra arte. Hain zuzen, urte hartan ezkondu eta bere karrera profesionala alde batera utzi zuen arazo familiarren ondorioz, ondoren 1875ean berriz itzuli zen ikerketa arkeologikoen mundura. Eta azkenik, 1992ra arte lanean jarraitu zuen konferentziak antolatuz eta hauetan parte hartuz (Cárdaba G., et alli, 1998, 159-160).

Emakume hauen lanaz hitz egitean kontutan izan behar dugu zailtasun ugariaren aurrean aurkitu zirela kasu askotan, beraien familia edo lana aukeratzera behartuta egon baitziren kasu ugarian eta emakume batzuek biak aukeratzea erabaki baitzuten, egoera are konplikatuago bilakatuz. Hain zuzen, biak aukeratzearen ondorioz eta bietan egoera egoki bat lortzeko nahiaren ondorioz, emakumeek askoz ere lan eta esfortzu handiagoa egin behar izan zuten gizonekin konparatuz (Cárdaba G., et alli, 1998, 160).

### 5.3. 1945etik 1970eko hamarkadara: finkapena eta hedapena

Hirugarren etapa Bigarren Mundu Gerratik, 1970eko hamarkadara arte luzatzen da. Emakume gehiago sartu ziren arkeologiara eta baita herrialde berriak ere, esate baterako, Portugal. Emakumeen lan nagusia oraindik ere museoan arloan aurkitzen zen eta hauen artean gero eta zuzendari eta kargu garrantzitsuagoak nagusitzen hasi ziren. Horrez gain, arkeologian alternatiba berriak eman ziren, eredu argienetako bat **Jacquetta Hawkes** (1910-1996) delarik, izan ere, akademiako lan tradizionala alde batera utzi eta arkeologiaren hedapenera igaro zen, komunikabideez baliatuz (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 21).

Labur esanda, Jacquetta Hawkes Ingalaterra, Irlanda eta Palestinan indusketa lanak burutu ondoren, lehen emakume arkeologo ezagunetarikoa bilakatu zen. Hawkesek, gizarte minoikoan emakumeak agintzen zutela iradoki zuenean, bide guztiak erabili zituen, liburuak, artikulatuak, elkarrizketak telebistan, irratia eta abar teoriaren berri emateko eta arkeologiaren ezagutza gizarteratzeko.



8.Irudia: Jacquetta Hawkes, seguraski 1939ko indusketa lan batzuetan Irlandan. Iturria:

<https://trowelblazers.com/jacquetta-hawkes-rewriting-the-prehistory-books/> Kontsulta eguna

(2019/06/05).

Jacquetta izan zen lehen emakumea Cambridgeko Unibertsitatean arkeologiako eta antropologiako titulazioan sartzen. Azken urtean bere lehen indusketa lanak burutu zituen

Christopher Hawkesek zuzenduta, ondoren bere senarra bilakatu zena. 1932an, berriz, Dorothy Garrod-ek zuzendutako indusketa lanetara abiatu zen Palestinako Caramelo mendira. 1939an Jacquettak bere lehen indusketa lanak zuzendu zituen Irlandan eta lehen liburua argitaratu zuen *The Archaeology of Jersey*.

1968an argitaratutako *Dawn of the Gods* liburuan Hawkes lehen arkeologoetarikoa izan zen iradokitzen antzinako zibilizazio minoikoen gizartea emakumeek gobernatzen zutela eta ez gizonezkoek. Izan ere, arte minoikoan gizonezko agintari oso gutxi ikusten zirela eta emakume indartsu eta boteretsuen irudi ugari ikus zitezkeela argudiatu zuen. Egindako lan guztiari esker, 1971an Britania Handiko Arkeologiako Kontseiluko zuzendariorde izendatu zuten (<https://trowelblazers.com/jacquetta-hawkes-rewriting-the-prehistory-books/>).

Emakume hauek aldaketa berri baten bidea ireki zuten, 1960tik aurrera, ezkontza eta lana bateragarriak bilakatu baitziren emakumeentzat, eta ez zuten bien arteko aukera bat egin behar. Nahiz eta ezkonduetako emakumeek arkeologian lan egiteko aukera izan, zailtasunak ez ziren egun batetik bestera desagertu. **Kathleen Kenyonen** (1906-1978) arabera, aurreko garaiarekin konparatuz, egoera okertu egin zen.

Kenyon nahiko gaztetatik arkeologiaren munduan murgilduta egon zen, izan ere, bere aita Sir Frederick Kenyon, Museo Britaniarreko zuzendaria izan zen 20 urtez. Lehen emakumea izan zen Oxford University Archaeological Society-eko zuzendaritza lortzen. 1929an bere ikasketak bukatzerakoan, Gertrude Caton-Thompson arkeologoarekin lanean aritu zen Zimbabwe Handiko indusketetan argazkilaria bezala. Nahiz eta hasieran ez zuen arkeologo lanetan aritzeko asmorik izan, bidaia hau egin ostean iritziz aldatzen hasi zen. (<https://apacma.wordpress.com/2014/05/30/la-arqueologa-de-jerico-kathleen-kenyon/>).


Zimbabwe Handitik Ingalaterrara itzultzean eta arkeologian lan egitea erabaki zuenean, Verulamiumen hasi zen lanean, hain zuzen, Britania Handiko hirugarren hiri erromatar handienean Mortimer Wheeler eta Tessa senar-emazteekin batera. Bertan *Wheeler*



*indusketa metodoa* ezagutzeko eta aztertzeko aukera izan zuen (<https://www.vision.org/biography-kathleen-kenyon-larger-life-486>).

1930-1940ko hamarkadetan, Kenyonek lan desberdinen bitartez, sekulako esperientzia lortu zuen, izan ere, Ingalaterrako indusketetan aritzeaz gain, Samarian, hau da, Bibliako hirian aritu zen lanean John eta Grace Crowfootekin batera eta baita ere Sabrathan, Libian. Bigarren Mundu Gerra baino lehenago Leicesteren Juduen Murua delakoa induskatu zuen. Bertan aurkitutako bainu erromatarrak K.o. 160 urtekoak dira, erromatarren arkitektura zibil nahiko bitxia da, sekulako mosaiko eta pareta dekoratuak dituztelarik (<https://archive.archaeology.org/online/reviews/kenyon/>).

Ondoren, 1949an John Garstangekin hasi zen lanean Jerikoko indusketetan. Gastrangek, sei kanpaina luzetan aritu ondoren, ezin izan zuen frogatu Bibliako gertakizunen eta arkeologiaren arteko harremana. Egoera hartan, Kenyon ekartzea erabaki zuen bere lanean erabilitako metodoak eta berreskuratutako materialak berrikusteko asmoarekin. 1951-1958 urte artean Kenyonen indusketa kanpainak eman ziren eta lan hauetan, Kenyonek *wheeler metodoa* egokitzea lortu zuen, datazioak zehazteko ahaleginei esker eta lurren, materialen eta egituren karakterizazioari esker. Metodo honi esker, serie estratigrafiko luzeen datak zehaztea posible bilakatu zen. Momentu hartatik aurrera, *Wheeler-Kenyon metodoa* bezala ezagutuko zen. Jerikon metodo honen bitartez lortutako datazioak, batez ere, Neolito garaian, ezinbestekoak izan ziren bertako historiaurrea ulertu eta ezagutzeko. (<https://apacma.wordpress.com/2014/05/30/la-arqueologa-de-gerico-kathleen-kenyon/>).



9. Irudia: Kenyonen bi irudi Jericoko indusketetan lanean eta bere lan baten irudia. Iturria:

<https://apacma.wordpress.com/2014/05/30/la-arqueologa-de-jerico-kathleen-kenyon/> Kontsulta eguna (2019/06/10)

Ikusi dugun bezala, Kenyonek sekulako aportazio metodologikoa egin zuen, izan ere, *Wheeler-Kenyon metodoa* egokitzea lortu zuen, bere garaian aurrerapen garrantzitsua izan zena arkeologiarentzako. Hala ere, gaur egun oraindik ere, sarritan metodo honetaz hitz egiten denean, Wheelerrek bakarrik egindako lana dela dirudi, Kenyon ez baita aipatu ere egiten.

Hortaz, emakumeak arkeologia profesionalean sartzeko gero eta aukera gehiago izan arren, akademian emakumeen ikusezintasuna oraindik ere arazo larria zen. Gizonezkoek beraien lanak aldizkari garrantzitsuetan argitaratzen zituzten bitartean, emakumeek bertako aldizkarietan eta prestigio gutxien zutenetan idazten zuten. Beraz, gizonen lanek beti arrakasta gehiago lortzen zuten, dibulgazio eta eragin askoz handiagoa baitzuten (Díaz Andreu M., Sørensen M., 1998, 22-23).

#### 5.4. 1970eko hamarkadatik gaur egunera: berdintasunaren bila

Aurreko etapan gehienbat aipatu ditugun lorpenak aurkikuntza ezberdinekin lotuta egon dira, baita aurrerapauso metodologikoekin, baina gure ibilbidean markatu dugun azken fase honen ardatz nagusia emakume arkeologoen egindako ekarpen teorikoa da. Izan ere,

emakumeen eskutik etorri da azken hamarkada hauetan galdera berriak planteatzea arkeologia munduan eta ikuspegi kritiko bat eraikitzea. Jakina, arkeologia feministaz ari gara. Badakigu ez dela izan teoria berritzaile bakarra, baina bai nabarienetariko.

Hasteko, kontuan izan behar dugu, nahiz eta lan arkeologiko batzuk iraganeko lan arkeologikoak zalantzan jarri eta emakumeen rola argitara ateratzen saiatu, ofizialki feminismoa **Conkey** eta **Spector**-en bitartez sartu zela arkeologiaren arloan. Autore hauek antropologia feministan eta lan feminista orokorretan oinarritu ziren, behar izan desberdinak proposatuz. Alde batetik, emakumeak subjektu historiko bezala kontuan izatea, eta beraz, iraganaz hitz egitean generoa bera kontutan izatea. Bestalde, bere helburuak pentsaera feminista bat aplikatuz lortzea, praktika arkeologikoen izaera matxista kritikatu. Kritika honen atzean aurkitzen den arrazoiketa nagusia da sexuen arteko harreman desberdintasunak ez direla berezkoak ezta naturalak, baizik eta historia bat dutela. Azken finean, feminismoaren helburu nagusienetako bat orainaldian eragitea zen. Eta nahiz eta berehala arkeologo batzuen aldetik feminismoarekiko urruntzea eman, pentsaera politiko desberdinetako emakume ugari bat egin zuten arlo akademikoan pairatzen zuten emakume eta gizonen arteko desberdintasunean. Honakoari eta feminismoak politikan eta zientzia sozialetan hartu zuen indarrari esker, generoa indar handiko ikasketa bilakatu zen arkeologian (Berrocal M. C., 2009, 28).

Norwegian eta Britania Handian berehala hasi ziren kongresuak antolatzen, 1985ean *K.A.N. Kvineer i arkeologi i Norge* (K.A.N. Norvegiako arkeologian emakumeak) aldizkaria sortu zen eta 1988an generoari buruzko elkarrizketak martxan jarri ziren Society for Historical Archaeology-ko kongresuetan. 80ko hamarkada honetako feminismoaren garai suttsuan, azpimarratzekoa da, 1988an **Margaret Conkey** eta **Joan Gerok** antolatutako Wedge Conference-a, non, emakumeei buruzko ikasketa bultzatzeaz arduratu ziren. Kongresuan *Engendering Archaeology: Women and Prehistory* (1991) Gero eta Conkeyk idatzitako liburua atera zen, arkeologia feministan eragin izugarria izan zuena, hiru jarduera kritikatu. Lehenik eta behin, ikerketa arkeologikoen joera matxista, ondoren, emakumeen eta beraien iraganeko parte hartze sozialaren ikerketa eta lan falta, eta azkenik, generoaren eta desberdintasunaren inguruko gogoeta eza.

Diskurtso feministari dagokionez, honakoa anizkuna da, bai teoriari bai metodologiari dagokionez eta Arkeologia Feministan ikuspuntu kontraesankorrak ematen dira sarritan.

Esate baterako, **Conkey** eta **Geroren** arabera, generoarekin lotzen diren sei teoriak honakoak dira, soziobiologia, generoa eraikitze sozial bezala, generoa eboluzio-prozesu bezala, generoa politika ekonomiko bezala, generoa agentzia bezala eta generoa emanaldi (*performance*) bezala. Teoria hauen kontraesanak generoa ulertzeko eran ematen dira, hau da, generoa errealitate biologiko eta unibertsal bezala ulertzea edo generoa konstrukzio sozial eta historiko bezala ulertzea. Laburbilduz, teoriak bi talde handitan banatzen dira, diferentziaren feminismoa *vs.* berdintasunaren feminismoa, mundu anglosaxoian hirugarren olatu feminista bezala ezagutzen dena.

**Wylie** eta **Conkeyren** arabera feminismoak honako ekarpenak egin dizkio arkeologiari modu labur batean esanda:

- Emakumeekin lotutako jardueren dokumentazioa, bai mikroeskalan bai eguneroko bizitzan, tradizionalki arkeologiarentzat oso zaila izan dena.
- Gizaki hondakinen ikerketa handia, adin zein sexuaren araberako banaketan oinarritutako dietaren eta lanaren arteko desberdintasunak bilatzeko.
- Ikerketa etnografiko, etnoarkeologiko eta arkeologia esperimentalaren bitartez, jada burututako lan arkeologikoetarako ikuspuntu berriak proposatzea.
- Iraganeko azalpen handiak birplanteatzea, kontuan izanik genero rola garai historiko bakoitzeko gizartean duen eraketa, generoa kategoria aldakor bat izan daitekeela kontutan izanik eta ez dela zertan sexuaren banaketa biologikoan oinarritu behar.
- Arkeologia tradizionalaren pentsamenduari egindako kritika, osatugabea edota azalpen gutxikoa dela leporatuz.
- Arkeologia taldeak eta lanak antolatzea, era ez hain hierarkiko batean, akademiatik kanpo bestelako talde batzuk sortuz eta praktika pedagogiko alternatiboak eskainiz.
- Prozesu sozial orokorrekiko interesa sortu, esate baterako, identitate multidimentsionalarekiko eta gizarte-mailarekiko (Berrocal M. C., 2009, 34).

Arkeologia feministak aldaketa nabaria pairatu du azken urteotan, bereziki zientzia sozialen eta humanitateen eraginaren ondorioz. Garapen honetan, hiru helburu nagusi eman dira. Lehena, landa lanean ematen den generoaren tratamendua da. Arlo honetan **Joan Geroren** lana azpimarratu behar da, izan ere, berak esan zuen generoak landa laneko

ezaugarri txikienetan ere eragiten zuela, gizon eta emakumeen arteko botere-harremanak salatuz, ondoren hauek diziplina guztian zehar eragiten zutelarik. Bigarren atalari dagokionez, “multivocalidad” delakoa garatzen da, hain zuzen, honakoak defendatzen du ez dela iraganaren inguruko interpretazio bakar eta zuzen bat egon behar. Honi buruzko lan garrantzitsu bat **Ruth Tringhamek** egin zuen Çatal Höyük. Eta azkenik, esperimentazioan zentratu da, batez ere, arkeologiaren zabalkundean eta talde berrien parte hartzea bultzatzean. Kasu honetan, historiak kontatzeko estrategiak erabili dituzte eta iraganari buruzko “egiazko baieztapenak” alde batera utzi dituzte. Joera honen aitzindaria Jane Spector izan zen “*What this Means*” (1993) lanarekin (Renfrew C., Bahn P., 2008, 91-93).

Aurrerapen hauekin emandako dokumentu feminista garrantzitsu ugari oraindik ere gaur egun, interneteko web-orri desberdinetan solik aurki ditzakegu. Hala ere, gutxienez orri hauei esker, esan dezakegu ikusleek iraganarekin erlazionatzeko aukera lortzen dutela.

### ***Espainiaren kasua***

Espainiari dagokionez, androzentrismoaren eta emakumeen paperaren inguruko lehen hausnarketan kezka 80ko hamarkadaren amaieran eman ziren, gaiari buruzko lehen artikulua plazaratu zelarik. Hala ere, akademiaren mundura pixka bat beranduago iritsi zen, hain zuzen, 1992an Santiago de Compostelan, “Reunión de Arqueología Teórica (RAT)” deituriko bileran emandako “Arqueología y Mujeres” saioarekin, non, E. Sanahuja, M. Picazo, S. Gili, P. González, S. Montón, C. Rihuete, E. Colomer, C. Álvarez, M.J. Bóveda, C. Sánchez-Albornoz, L. Vilaseco, A. Vila, T. Argèles, N. Sanz, M. Díaz Andreu, M. Parra, T. Sanz eta M. Tenas-ek parte hartu zuten (Berrocal M. C., 2009, 28).

Feminismoaren sarrerak Espainiako arkeologian hausnarketa teorikoa bultzatu du, praktika eta narrazio arkeologikoekiko kritika sustatu du, hipotesi berrientzako formulazioak garatu ditu erregistro arkeologikoak berrinterpretatzeko, ordura arte aztertu gabeko gai berriak eta kategoria berriak martxan jarri ditu iraganeko gizartearen dinamika historikoa azaltzeko. Honi esker, diskurtso arkeologikoaren eta erabilitako hizkuntzaren joera sexistaren inguruko ikerketak idatzi dira; denbora, espazioa eta identitate pertsonal kontzeptuak eta hileta erregistroak zalantzan jarri dira; narrazio tradizionaletan eta lanbidean ahaztuak izan ziren iraganeko emakumeen lan eta ekarpenak argitara atera dira

eta gaurko ikuspuntutik irudikatzen diren maskulinitatearen rol eta ereduak zalantzan jartzen hasiberri dira (Lozano Rubio S., Montón Subías S., 2012, 165).

Azpimarratzekoa da espainiar feminismoak oinarri eta izate propioak dituela, bestelako teoria batzuek ez bezala. Espainian feminismoaren lehen bultzatzaileek, **Encarna Sanahuja** eta **Marina Picazok**, besteak beste, konpromisu politiko bikoitz bat izan zuten, marxismoarekin eta feminismoarekin eta beraien kezka nagusiak honakoak ziren: patriarkatuaren jatorria; gorputz, objektu eta mantenuaren garrantzia; emakumeen ikusezintasuna eta Arkeologiaren errepresentazioa edo erabilera soziala. Beraz, esan daiteke Espainian Arkeologia Feministan eragin gehien izan duen joera pentsaera feminista-materialista izan dela (Sánchez Romero M., 2014, 283). Ikertzaile batzuek politikarekin eta akademiarekin izandako harremanari esker, esate baterako, Sanahujaren kasuan bezala, feminismoa espainiar arkeologian integratu zen, ia-ia Eskandinavia eta Estatu Batuen une berean. Ikusi dugun bezala, 80ko hamarkadatik emakumeei eta lanaren banaketa sexualari buruzko lan eta seminarioak martxan jarri ziren, eta diskurtso zientifiko feministak eman ziren. Horrez gain, aipatzekoak dira ere Granadan 2003an eta 2005ean ospatutako kongresuak (Berrocal M. C., 2009, 29-30).

Arkeologia feminista anglosaxoiak eragin nabaria izan du espainiarrean. Hala ere, eragin nabariena marxismoaren, estrukturalismoaren eta psikoanaliaren eskutik eman da. Bukatzeko esan, arkeologia anglosaxoiak landu dituen zientzia feministaren konpromisu epistemologikoak oraindik ia ez direla garatu Espainian (Berrocal M. C., 2009, 30).

## **6. Ondorioak eta azken proposamenak**

Lanaren helburu nagusia emakumeen ikusezintasuna argitaratzea izan da, bai hasiera batean EHU-ko Historia Graduko egoeraren berri emanez eta baita ondoren emakume arkeologoek historiarekin jarraituz. Lanean zehar ikusi den bezala, esan daiteke joera androzentrista hezkuntzan orokorrean aurkitzen dela, baita unibertsitatean ere, XX. mende amaiera arte joera berririk sortu ez zelarik. Espainian 90eko hamarkadan lehen aldiz generoari buruzko kurtsoak ematen hasi ziren hainbat irakasgaietan, baina oraindik ere liburu gehienetan genero kontzeptua ez zen batere zaintzen eta genero femeninoa berriz ez zen aipatu ere egiten (Sánchez Romero M., 2005, 20-21). Hala ere, Espainiako zenbait unibertsitatetako ikasketa planak EHUko Historia Graduko ikasketa planekin

alderatzen baditugu, ikusiko dugu hauetariko batzuetan aurrerapenak eman direla azken urte hauetan.

Espanian Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa izan da emakumeen ikasketen bultzatzaile nagusia. 1992. urtetik, Historiaurreko emakume arkeologoen bigarren zikloko hautazko ikasgai bat irakasten hasi ziren eta urte batzuk beranduago doktoretzako ikasketetan feminismoari buruzko ikasketa plana martxan jarri zuten. 90eko hamarkadan, emakumeen historiari buruzko beste bi irakasgai gehitu zituten, bata Antzinarokoa eta bestea Erdi Arokoa. Paloma González Marcének, unibertsitateko batzordeko Historiaurreko, Antzinaroko eta Erdi Aroko arloetako ordezkariak, irakasgai berrien bultzatzailea zen heinean, azaldu zuen helburua etorkizunean emakumeei buruzko ikasketa espezializatu bat garatzea zela (Sánchez Romero M., 2005, 21).

Madrilgo Complutense Unibertsitatean berriz, Genero Arkeologiari buruzko lehen doktoretza kurtsoa aurkeztu zen 1997an Victor Fernández eta Margarita Díaz Andreuren eskutik. Ondoren, Granadako unibertsitatea ere Genero Arkeologiari buruzko kurtsoak ematen hasi zen (Sánchez Romero M., 2005, 21-22).

Beraz, Espainiako unibertsitateetan 90eko hamarkadatik emakumeen ezagutzari buruzko integrazio bat eman zen ikasketa planetan. Hori dela eta, lan honen bitartez adierazi nahiko nuke EHU-n bertan Historiako Graduan ikasketa-planari begira zenbait aldaketa ematea ezinbestekoa dela. Alde batetik, ezinbestekoa da karrerako lehen mailan nahitaezko irakasgai bat ezartzea emakumearen historia ezagutzeko ikasleek. Izan ere, lehen mailan gainontzeko arloen (Historiaurrea, Geografia, Arte, etab.) jakintza orokor bat irakasten den bezala, beharrezkoa da ere emakumeek mendeetan zehar jasandako ikusezintasuna alde batera uztea eta beraien ekarpenak ezagutzea. Kurtsoek aurrera egin ahala berriz, hautazko ikasgaiak eskaintzea ere ezinbestekoa da, gainontzeko arloekin egiten den bezala, hau da, ikasleek nahi eta nahi ez aukera izan behar dute gai honen berri edukitzeko, arlo honetan espezializatzeko. Aitortu beharra dago gaur egun irakasle batzuek (batez ere emakumeek) gai honekiko duten kontzientziaioari esker, posible dela lanen bat edo beste jorratzeko aukera izatea ikasleek. Hala ere, onartezina da gure aukerak irakasle batzuen sentsibilizazioan oinarritzea.

Bestalde, bukatzeko argitu nahiko nuke, emakume arkeologoen historia aztertzerako

orduan, nahiz eta bibliografia badagoen, ez dela horren anitza, eta sarritan emakumeei buruzko informazioa lortu ahal izateko web orrietara jo behar izan dut. Hortaz, badirudi arazoa ez dela unibertsitate giroan soilik pairatzen<sup>1</sup>, baizik eta oraindik ere, goragotik datorren arazo bat dela esan daiteke. Hala ere, lanean ikusi daitekeen moduan, feminismoaren lanari esker iraganeko emakumeek (kasu honetan arkeologiaren munduan ibili zirenak) pixkanaka-pixkanaka bide berriak irekitzeko aukerak dituzte, historian zehar egin duten lan guztia argitara azaleratuko delarik. Oraindik ere lan asko dugu aurretik, baina espero dut behintzat GRAL hau ibilbide honi egindako beste ekarpen txiki bat izatea.

## **Bibliografia**

ANDINO Susana, PÉREZ-FUENTES Pilar, 2003. *Genero diskriminazioa Euskadiko unibertsitate sistema publikoan*. Gasteiz: Emakunde.

BAHN Paul, RENFREW Colin, 2008. *Arqueología. Conceptos clave*. Madril: Akal.  
CÁRDABA, Gemma; CRUZ BERROCAL, María; GONZÁLEZ, Carmen; MANSILLA, Ana María; RODRIGUEZ DE LA ESPERANZA, María Jesús; RUIZ, Celia; TORMO, Mercedes 1998. “Las primeras generaciones de arqueólogas españolas: una aproximación”. *Revista d’Arqueologia de Ponent*, 8. 151-166.

CRUZ BERROCAL, María 2009. “Feminismo, teoría y práctica de una arqueología científica”. *Trabajos de Prehistoria*, 66 (2): 25-43.

DÍAZ-ANDREU Margarita, STIG SØRENSEN Marie, 1998. *Excavating Women. A history of women in European archaeology*. London: Routledge.

GRAHAM TRIGGER, Bruce, 1992. *Historia del pensamiento arqueológico*. Bartzelona: Editorial Crítica.

---

<sup>1</sup> Bitxikeria badirudi ere, aipatu nahiko nuke, nahiz eta akademiaren eskutik egin ez den, Arqueoart deituriko enpresa batek, Espainiako emakume arkeologoei buruzko joko bat asmatu duela, beraien izenak eta irudiak lotzean datzana. Honako metodoak, hau da, jokoak eta bestelakoak nahiko erakargarriak izan daitezke gure eremuko emakume arkeologoak ezagutarazteko eta ondo legoke hauek ere irakaskuntzan erabiltzea.



HAMILTON Sue, WHITEHOUSE Ruth D., WRIGHT Katherine I., 2007. *Archaeology and Women. Ancient & Modern Issues*. Kalifornia: Left Coast Press.

MONTÓN SUBÍAS, Sandra; LOZANO, Sandra 2012. “La arqueología feminista en la normatividad académica”. *Complutum*, 23 (2): 163-176.

MONTÓN SUBÍAS, Sandra 2014. “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”. *ICREA/UPF (Departamento de Humanidades)*, 15: 242-247.

SÁNCHEZ ROMERO, Margarita, 2005. *Arqueología y género*. Granada: Universidad de Granada.

SÁNCHEZ ROMERO, Margarita 2014. “Mujeres, Arqueología y Feminismo: aportaciones desde las sociedades argáricas” *Departamento de Prehistoria y Arqueología, Universidad de Granada*, 15: 282-290.

**Web orriak:**

<https://digventures.com/2015/03/pioneering-women-in-archaeology/>

<https://www.ehu.eus/eu/historiako-gradua/egiaztapena-jarraipena-eta-akreditazioa>

<https://www.ehu.eus/eu/historiako-gradua/kreditu-eta-irakasgaiak-ikasturteka>

<http://www.gshdl.uni-kiel.de/news/mestorf-ice/>

[www.micmag.net/en/profiles/3864-jane-dieulafoy-una-francotiradora-periodista](http://www.micmag.net/en/profiles/3864-jane-dieulafoy-una-francotiradora-periodista)

[https://www.eldiario.es/retiaro/Jane-Dieulafoy-exploradora-trasvestida\\_6\\_757034312.htm](https://www.eldiario.es/retiaro/Jane-Dieulafoy-exploradora-trasvestida_6_757034312.htm)

<https://www.mujiresenlahistoria.com/2013/05/la-constructora-de-irak-gertrude-bell.html>

<https://digventures.com/2015/03/pioneering-women-in-archaeology/>

<http://philosophyofscienceportal.blogspot.com/2010/10/harriet-boyd-hawessignificant-woman.html>

[https://asteria.fivecolleges.edu/findaids/smitharchives/manosca102\\_bioghist.html](https://asteria.fivecolleges.edu/findaids/smitharchives/manosca102_bioghist.html)

<https://mujeresconciencia.com/2014/09/22/dorothy-garrod-rememorando-una-innovadora-arqueologa/>

<https://trowelblazers.com/dorothy-garrod-2/>

<https://www.flickr.com/photos/avilas/7563463580/in/photostream/>

<https://trowelblazers.com/jacquetta-hawkes-rewriting-the-prehistory-books/>

<https://apacma.wordpress.com/2014/05/30/la-arqueologa-de-jerico-kathleen-kenyon/>

<https://www.vision.org/biography-kathleen-kenyon-larger-life-486>

<https://archive.archaeology.org/online/reviews/kenyon/>

### **Dokumentuak**

Autoinforme de Seguimiento. Grado de Historia (2017-2018).